

Jorge Semprunek hitzaldia eskainiko du ostegunean Bilbon, Blas de Oteroren omenezko egunaren ekitaldien baitan

BILBO, 12 (EUROPA PRESS) Blas de Oteroren eguna ospatuko da Bilbon datorren ostegunean, martxoak 15, olerkari bilbotar famatuaren omenez prestatu diren hainbat ekitaldirekin. Besteak beste, Jorge Semprun idazlearen partaidetza izango du jardunaldiak, "París 1952: hacia la libertad" izenburuko hitzaldiarekin. Bilboko Udaleko Kultura eta Euskera Sailak eta Blas de Otero Fundazioak antolatu dute programa. Aurtengo edizioan, olerkariak Parisen bizitakoak bere lanean utzitako aztarnetan oinarrituko da idazlearen jaiotzaren urteurrena. Blas de Oteroren eguna, Bilboko Udalak hiriko hiru idazle unibertsalenen, hots, Miguel de Unamuno, Gabriel Aresti eta Oteroren beraren memorian ezarri dituen ekitaldien barnean kokatzen da. Blas de Oterok lehen aldiz Espainia utzi zueneko 55. urteurrena betetzen da aurten. Frantziar hiriburuan ezagutu zuen bilbotarrak Jorge Semprún idazlea, "Autobiografía de Federico Sánchez" izeneko lanean madrilgo idazleak jasotzen duen moduan. Bertako giro komunistarekin bat egin zuen Oterok garai hartan eta "Pido la paz y la palabra" lanaren oinarrian dagoen gizarte salaketarako poesia lantzen hasi ere. Blas de Oteroren eguna 19,30etan hasiko da Bidebarrietako Liburutegian. Jon Sanchez Bilboko Udaleko Kultura eta Euskera zinegotziak eta Blas de Otero Fundazioaren presidentea Sabina de la Cruzek emango diote hasiera ekitaldiari eta jarraian Jorge Semprún idazleak "París 1952: hacia la libertad" hitzaldia eskainiko du, Izaskun Azurmendiren poesia irakurketarekin bukatuz eguna. AURREKO EDIZIOAK Blas de Otero egunaren lehenengo edizioa 2000. urtean ospatu zen, eta orduan, idazle bulbotarraren laneko intertestualitateaz aritu zen Mario Hernández, "Blas de Otero, épica y lirismo" izeneko hitzaldian. Bigarren edizioan, "Tres miradas sobre Blas de Otero" mintzaldia eskaini zuten Mercedes Acillonak, Jose Fernandez de la Sotak eta Jesus Munarrizek. 2002an zabalera handiagoa izan zuen egunak eta Blas de Otero Nazioarteko Biltzarrak, Blas de Otero, geografía eta historia erakusketak eta zenbait argitalpenek osatu zuten egitaraua. Luis García Monterok eta Sabina de la Cruzek Oteroren bizitza eta lanaren inguruko hausnarketa egin zuten 2003an, eta 2004an, Luis Antonio de Villena eta Felipe Juaristi izan ziren hasierako hitzaldian protagonista, "Si he perdido la vida... me queda la palabra" errezitaldi poetikoarekin. Maitasunak Oteroren lanean izandako eraginaren inguruan garatu zen ospakizuna 2005ean, Antonio Martínez Sarrión-ek eta Juanjo Lanzek eskainitako "Amor y poesía" hitzaldiarekin. Iaz, "Pido la Paz y la Palabra" lanaren argitalpenaren 50. urteurrena ospatu zen, Bernardo Atxaga idazlearen parte-hartzearekin.